

ZONBI UHARTEA

Zonbi espazioak biziberritzea: Hirigintza-prozesuak eta sormen- eta kultura-industriak integratuz

Nerea Díaz

Gaur egungo hiri-ikuspegiak hainbat erronkari egin behar die aurre; besteak beste, zonbi espazioei, hiri-plangintzari eta sormen- eta kultura-industrien sustapenari. Hiru elementu horiek elkarri lotuta daude, eta funtsezkoa da elkarrekin lantzea gure hirien garapen jasangarriako.

Zonbi espazioak hirigune abandonatuak eta dekadenteak dira, gutxiegi erabiliak, beren erakargarritasuna eta jarduera galdua dituztenak. Higiezin balio-galera, oinarritzko zerbitzurik eza, azpiegitura narriatuak eta delinkuentziaren presentzia dituzte bereizgarri. Espazio hauek erronka handia dira hiri-plangintzarako, eragin txarra dutelako biztanleen bizi-kalitatean, eta gizarte- eta ingurumen-arazoen iturri bihur daitezkeelako. Era berean, ahalmen handia dute eraldatzeko, eta hirigintza-prozesuek berebiziko garrantzia izan dezakete haiek biziberritzeko. Testuinguru horretan, hiri-plangintzaren funtsezko elementuetako bat da garapen-proiektu mistoak sortzea. Proposamen horiek lurzuaren hainbat erabilera uztartzen dituzte, hala nola etxebizitza eskuragarriak, merkataritza-espazioak eta jolas- eta kultura-eremuak. Jarduera dibertsifikatuak txertatzeak giro dinamikoa pizten du, egoiliarak eta bisitariak erakarri, eta inguruan bultzada ekonomiko eta soziala sortzen du.

Zorrotzaurren egindako topaketarako, Urbanbategen eta [Azkuna Zentroak](#) zonbi espazioen ideia proposatu zuten, Idensitat-en definizioan oinarrituta: "logika espekulatiboek, interes pribatuek baldintzatutako kudeaketa publikoek, hasi eta geldiarazitako obrek... definitutako espazioak; hiri-paisaia landugabeak, pertsona edo instituzio askoren borondateek eragindako desitxuratzeak gorabehera, jardunean jarraitzen dutenak. Pertsona horiek eman nahi izan zioten bizitza lurraldeko dinamiketarik kanpoko interesekin asmatuta baitzegoen".

Laburbilduz, zonbi espazioen ideiak, Zorrotzaurre inguruan deskribatzen den bezala, bereziki nabarmentzen ditu hirigintza-erabakien, garatzeko itzaropenen eta komunitatearen benetako beharren arteko desartikulazioa eta koherentzia falta. Espazio horiek onartzea eta ikuspegi kritiko eta proaktibotik jorratzea funtsezkoa da lurraldean eraldaketa positiboa eta jasangarria lortzeko.

Espazio horiek berronertzeko, ikuspegi integrala behar da, hirigintza-, gizarte- eta kultura-arloko neurriak uztartuta. Etorkizuneko hirietan, funtsezkoa izango da sormen- eta kultura-industriak hirigintza-prozesuetan integratzea, zonbi espazio horiek berronertu ahal izateko, hiri-komunitateen bizitza aberastuko duten eremu bizi eta aktibo bihurtuz. Era berean, funtsezkoa da komunitatearen parte-hartzea bermatzea erabakiak hartzeko prozesuan, kultura-eragileak eta auzokideak inplikatu daitezzen, eta ingurunearen eraldaketaren zuzeneko onuradunak izan daitezzen. Auzoaren iraganen eta orainean protagonista izan diren moduan, etorkizunean ere protagonista izan behar dute.

Sormen- eta kultura-industriek funtsezko zeregina betetzen dute, gutxiegi erabilitako, hondatutako edo hiri-plangintzak ahaztutako espazioak eraldatzeko prozesuan, aukerak ematen baitute espazio horiei berriz balioa emateko.

Lehenik eta behin, KSlek (kultura- eta sorkuntza-industriek) balio ekonomiko nabarmena ematen diete hiriei. Industria horiek enplegua sortzen dute, inbertsioak erakartzen dituzte, eta lagungarriak dira tokiko hazkunde ekonomikorako; ekintzailatza eta berrikuntzarako ekosistema aproposa sortzen da, enpresa berrien eta negozio-aukeren garapena bultzatzen dutelako. Zonbi espazioetan kultura-zentroak, diseinu-estudioak edo antzokiak jartzean, interes berria sortzen da inguruan, eta

horrek, aldi berean, erakar ditzake tokiko beste eragile batzuk, turismoa eta garapen ekonomikoa. Horrek lotura du Andrés Jaqueren¹ ideiarekin, alegia, Ps1aren proiektuak² eta, ziurrenik, ezein proiektu arkitektonikok ezin duela desagerrarazi, ez behin betiko konponbidea eman gure gizarteek aurre egin beharreko erronketako bati ere. Baina horrek ez du esan nahi ezin denik aliantzarik egin, azkenean nabarmen aldatu ahal izateko gai horiek egunez egun lantzeko modua, edo aukera alternatiboak eskaintzeko.

Nabarmendu behar da KSlek duten potentziala hemen dagoela: berrikuntzan, originaltasunean eta esperimentazioan duten ikuspegia. Industria horiek pertsona sortzaileek eta ekintzaileek bultzatzen dituzte, konbentzioak hautsi, eta proposamen fresko eta berritzaileen bidez inpaktua eragin nahian. Ikuspegi horiek zonbi espazioen eraldaketan txertatzean, irtenbide bakanak eta erakargarriak sor daitezke, komunitatean oihartzuna izan, eta publiko berriak erakartzeko modukoak.

Bigarrenik, KSlek ere eragin eraldatzailea dute komunitatearen sare sozialean. Elkartzeko, trukatzeko eta parte hartzeko espazioak sortzen dituztenez, kohesio soziala sustatu, eta biztanleen identitate- eta kidego-zentzua indartzen dute. Kultura-ekitaldiek, jaialdiek, erakusketek eta arte-jarduerak, bisitariak erakartzeaz gain, eragin-trukea eta lankidetzaren sustatzen dituzte eragile sozialen artean, kohesioa eta sare komunitarioa trinkotuz. Hirigintza-prozesuak somen- eta kultura-industriaren bultzadarekin uztartzen direnean, sinergiak sortzen dira, eta horiek ugaltzen dituzte komunitatearentzat eta hiri-ingurune osoarentzat dauden onurak. Sinergiak eta elkarrekiko onurak logika iraunkorretan ezarri behar dira, ez aldi baterako erabileretan.

Zonbi espazioak berroneratzea, erabilera mistoak integratuz eta kultura- eta sormen-jarduerak sustatuz, onuragarria da egoiliarren bizi-kalitatea hobetzeko. Aldi berean, hiriko beste alde batzuetako biztanleak eta turistak erakartzen ditu, garapen ekonomiko eta sozialeko zirkulu birtuoso bat sortuz, zeina funtsezkoa den gure hirien garapen jasangarrirako. Alderdi horiei modu integralean helduz gero, aukera izango dugu abandonatutako eremuak leku bizi eta oparo bihurtzeko. Gainera, eremu horietan kultura- eta sormen-espazioak sortzeak aukera emango du tokiko identitatea babesteko, ondare historikoa berreskuratzeko eta kultura-aniztasuna sustatzeko. Epe luzearako ikuspegiarekin eta tartean dauden eragileen arteko lankidetzarekin, eraiki ditzakegu hiri inklusiboak, dinamikoak eta kulturalki aberatsak.

Laburbilduz, KSlek katalizatzaile gisa funtziona dezakete hiria berroneratzeko, leku horiek kultura- eta sormen-jarduerarako gune bihurtuz, herritarren bizitza aberastuz. Gainera, sormen-industriek ahalmena dute enplegua sortzeko eta beste eragile batzuk erakartzeko, eta, horrela lagungarriak dira krisien aurrean erresilienteagoa den hiri-garapen ekonomikoa lortzeko. Industria horien aldeko ekosistema bat sortzeko, arte-hezkuntza, kultura-ekintzaileen prestakuntza eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren sustatu behar dira.

1 La arquitectura como instrumento político: Andrés Jaque eta Enrique Walker
<https://www.scielo.cl/pdf/arq/n96/0717-6996-arq-96-00016.pdf>

2 MoMA PS1, New Yorkeko Arte Modernoko Museoren egoitza da, eta arte garaikidearen azken joerei eskainita dago. New Yorkeko Queens hiriko Long Island City auzoan dago.

T-Factor, jardunbide egokiak hiria garatzeko beste eredu batzuetarako

Europako T-Factor proiektuak espazioaren aldi baterako erabileren potentziala aztertzen du, hiri-ingurune inklusiboagoak, jasangarriagoak eta biziagoak lortzeko. Europako Batzordeko Ikerketa eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiko T-Factor-ren aholkulari Emanuela De Mennak proiektua abiatzean azaldu zuenez, Europako Batzordeak arreta jartzen die hiri-berroneratzeari buruzko ikuspegi berriei T-Factor proiektuarekin. Horizonte 2020 programak finantzatzen duen berrikuntzako ekintza honek "gutxiegi erabiltzen diren hiri-espazioen aldi baterako erabilerak bultzatu nahi ditu, balio publiko partekatua sortuko duten berrikuntza kulturekin, sozialekin eta ekintzailetzakoekin esperimentatzeko". Zorrotzurre uhartea da sakon aztertu den kasuetako bat.

Hiriak gizadiaren asmakizunik handienen artean daude. Bizitzaren mihisea bezalakoak dira; bizi, lan egin eta jolasten garen lekua; askok eta askok bertara jotzen dute etorkizun hobe baten promesarekin. Hasieran, baliabide naturalak, elikagaiak, ura eta segurtasuna ziren, batez ere. Industria-iraultzarekin batera, aurrerapenaren mitoa iritsi zen. Eta gizateria landa-aldetik hiri-ingurunera joaten hasi zen, beste leku batzuetan bizitza hobea zela sinetsita. Aurrerapenaren eskailera, zoritxarrez, itxuraz, hautsita dago gaur egun. Klima-aldaketa, desberdintasuna, lan-etena eta beste erronka global batzuk onartuta, konplexutasun-maila handiagoa du hirien garapenak.

Europako Batzordeak eginkizun erabakigarria du hirien etorkizunari begira. Europako instituzioak aktiboki laguntzen ari dira konponbide berritzaileak sor daitezen, hiriak berroneratzeko funtsezko erronkei aurre egiteko, alde batetik, gure hiri-inguruneetan posible denaren eremua zabaltzen duten abangoardiako ikerketak finantzatuz, eta, bestetik, eskala handiko azpiegiturak eta berrikuntzak finantzatuz. Ildo horretan, Batzordea I+Gko finantziario-mekanismoak garrantzitsuenetako batzuk erabiltzen ari da, lagungarri izan daitezen hiri-sorkuntzaren ikuspegi berriak aztertzeko, eta, horrela, hasieran sortu zirenek zuten etorkizun hobe baten promesa bete ahal izateko. Aktiboki ere egiten du, proiektuen arteko sinergia estrategikoak eta lankidetzak babestuz.

Ikuspegi horietan, hiri-berroneratze estandarren kontzeptua —azpiegitura "gogorrean" eta goitik beherako erabakiak hartzean soilik oinarritutakoa— osatzeko, sortzen ari diren kultura-ekimenei (fab lab, maker mugimendua eta beste berrikuntza-komunitate batzuk) zeregin garrantzitsua ematen dieten irtenbide-multzoko bat dago, eta hiri osoa erabiltzen du mihise gisa, diseinu ireki, parte-hartzaile eta banaturako. Skatepark-ak tabako-fabrika zaharretan, food lab-ak, herritarren lorategiak eta naturan oinarritutako beste irtenbide batzuk, inork egiten ez dituen galdera kritikoak egitera ausartzen diren arte-ekoizpeneko zentroak, fabrikazio digitaleko laborategiak, ekonomia zirkularra ekoizpen prozesuan erabat integratuta dutenak..., hirien sorkuntzaren ikuspegi banatuak eta inklusiboak susta ditzakeen erabilera baliotsuen adibide batzuk baizik ez dira.

Herritarren parte-hartzean eta behetik gorako ereduetan oinarrituta dauden hiri-berroneratzeko ekintzen ikuspegi berri horrek top-down estrategiak osatzen ditu, Europar Batasun osoan benetako elkarte publiko-pribatuak sortzeko.

T-Factor-en eginkizuna da modua aurkitzea eraikinen eta eremu historikoen ondarea babesteko, fatxadak zaharberitzeaz harago doazen esku-hartzeekin, eta osagai kulturala aktibo estrategiko gisa hartzen dute, gainbeheran dauden eremuak aldatu, eta egungo arazoei irtenbide zehatzak emango dizkieten zentro bizi bihurtzeko. Aldi baterako hirigintzako prototipoak ikertuz eta ezarriz, T-Factor-en nazioarteko partzuergoak udalen, unibertsitateen, enpresen eta oinarritzko erakundeen koalizio bat sortu du, eta horiek konpromisoa hartu dute aldi baterako hirigintzan oinarritutako ezagutzak, tresnak eta baliabideak garatzeko, etorkizuneko hiri parte-hartzaileago, inklusiboago eta jasangarriagoetarantz aurrera egiteko.


Hiri-plangintzako goitik beherako ikuspegi zurruneziek orbain izugarriak utzi dituzte gure hiri-paisaietan: amaitu gabeko auzoak, eraikin berri hutsak eta arimarik gabeko barrutiak, hiri-berroneratzearen paradoxaren monumentu direnak.

Litekeena da urteak igarotzea, eta sarritan hamarkadak ere bai, hiri-eremu bat birsortzeko plan maisu bat onartzeko prozesuaren eta benetako ezarpenaren artean. Trantsizio-garai hauetan, kultura-, gizarte- eta enpresa-jarduerak sustatzeko espazioen belaunaldi berri bat egotea faktore erabakigarria izan da, hiriak ezezagun den horretara egokitzeko.

Proiektuaren lantaldeak tokiko tresna, jarraibide eta pilotu batzuk ikertzen, sortzen eta praktikan jartzen ditu, Europar Batasuneko hiri guztietan aldi baterako hirigintzaren erabilera zabaltzeko eta esploratzeko. T-Factor-en ikerketa aurreratuak Europa, AEB eta Txinako aldi baterako erabileraren adibiderik berritzaileenak, eraginkorrenak eta etorkizunera begira daudenak aztertzen ditu, beren historiekin funtzionario publiko, garatzaile pribatu eta oinarrizko komunitateentzat erabilgarria izango den ezagutza lortzeko. T-Factor-eko tokiko pilotuak proiektuaren kontzeptuaren proba dira, non taldeak ikerketa aurreratuaren emaitzak praktikan jarriko ditu, Europar Batasuneko garapen goiztiarreko sei arlotan.

T-Factor-ek duen ikuspegiaren arabera, Europa leku egokia da hiri-ingurune txiki, ertain eta handietan eskala desberdinetan funtziona dezaketen ideiak probatzeko, etorkizun partekatu baten ikuspegia berrosatuko duten eredu berriak sustatzeko.


Horrek bidea erraztu dezake hiriak sortzeko aro berri baterako, hiri-ingurune batean gizakia izateak esan nahi duenaren aukerak zabalduz.



1. ir. Zorrotzaurre uhartea, Bilbo. Google Earth-en irudia, gaur egungo eraikin eta orube hutsekin. 2023ko ekaina. Fotografia: Google Earth



2. ir. Zorrotzaurre uhartea, Bilbo. Zaha Hadidek Zorrotzaurrerako diseinatutako hiri-berroneratzeko proiektuaren 3Dko irudia. Fotografia: Zorrotzaurreko Kudeaketa **Batzordea**



3. ir. Cromoduro fabrika zaharra, industria-ondare gisa katalogatua, gaur egun aurri-egoeran. Zorrotzaurre uhartea 2018. Fotografia: Artxibo propioa.



4. ir. Mefesa fabrika zaharra, industria-ondare gisa katalogatua, gaur egun aurri-egoeran. Zorrotzaurre uhartera 2017. Fotografia: Artxibo propioa.



5. ir. "Isolamendu Eremua" horma-irudia Marmoleria Ercor Stone-ren fatxadetan, Deustuko Erribera 73, Bilbo. 2019. Fotografia: Artxibo propioa.



6. ir. Bilboko galleta-fabrika zaharra, Artiach fabrika, industria-ondare gisa katalogatua, Deustuko Erribera 70, Zorrotzaurre uhartera, Bilbo. Gaur egun ekosistema emankorra da, eta, bertan, industria tradizionalak eta sormen- eta kultura-industriak daude elkarrekin. 2021. Fotografia: Artxibo propioa. <https://espacioopen.com/nosotras/>



7. ir. Hiri-pasealekuak industria-aurrietan. Open Aroma Lab tailerra Frank Bloem-ekin, Maker Faire Bilbao sormen-teknologiaren nazioarteko jaialdian, Artiach fabrika zaharrean antolatua, Espacio Open instalazioetan Zorrotzaurre uhartera 2021. Fotografia: Artxibo propioa. <https://espacioopen.com/workshop-open-aromalab/>



8. ir. Erabilera publikoko espazioa, Bilboko Zorrotzaurreko Erriberako 4. zenbakiko bizilagunek sortua. 2020. Fotografia: Artxibo propioa.



9. ir. Europako kultura-eragileen bisitak Artiach fabrika zaharraren barruko lokaletara / erabili gabeko pabilioietara / jardueretara. 2022. <https://espacioopen.com/visitas/> Fotografia: Artxibo propioa.



10. ir. Ikasteko eta elkarrekin sortzeko modu berriei buruzko tailer-esplorazioa, auzoko goi-mailako hezkuntza eta uhartean bizi diren komunitateak elkartzen dituena, sorkuntza-praktika berriak bultzatzeko. IED Kunsthal-eko ikasleekin TFactor proiektuaren esparruan izandako topaketak. 2022. Fotografia: Artxibo propioa. <https://zorrotzurre.t-factor.eu/2022/09/21/nuevas-formas-aprendizaje->



11. ir. Igandeko Open Your Ganbara merkatuko une batzuk. Milaka lagun hurbiltzen ziren igandero uhartera, 2009tik 2019ra, Espacio Openek antolatuta. Fotografia: Artxibo propioa. <https://espacioopen.com/open-your-ganbara/>



12. ir. Teknologia sortzaileei eta esparru artistikoko 3D inprimaketari buruzko tailerra, teknologia sortzaileen nazioarteko Maker Faire Bilbao jaialdiaren barruan, Artiach fabrika zaharrean antolatua, Espacio Open instalazioetan. 2021. Fotografia: Artxibo propioa. <https://espacioopen.com/ceramics-3d-printing-bootcamp/>



13. ir. Denboraren Manifestua Bruselako Topaketaren grafikoa, Eta aldi baterako erabilerek bizkortu ahal badituzte bidezko trantsizioak Europako hirietan? TFactor. 2023ko apirila Fotografia: Artxibo propioa. <https://www.t-factor.eu/time-manifesto-just-transitions/>

NEREA DÍAZ



Nerea Díaz kultura-kudeatzaileak Berrikuntza eta Ezagutza Kudeatzeko Masterra du, eta sektore pribatuko eta sektore publikoko proiektuen kudeaketa soziokulturalean lan egin du. Espacio Open-en sortzailea eta zuzendaria da. Hamalau urteko ibilbidea duen erakunde horrek kultura-proiektuen, teknologiaren eta gizarte gaien elkargunean jardun du Bilboko Zorrotzaurre uhartean, Deustuko erriberan.

Azken urteotan, nazioarteko sareen topaketa askotan parte hartu du, hala nola Maker Faire sormen-teknologietako jaialdietan (San Frantzisko, New York, Shenzhen, Erroma, Zurich...), Fab Lab Conference urteroko biltzarretan (Shenzhen, Boston, Toulouse), eta esperimentazio sozialeko ekitaldietan, hala nola Burning Man Nevadan, AEBetan, eta Europako beste edizio batzuetan, besteak beste, Nowhere Espainian eta Borderland Suedian. Inguruneko hainbat erakundetan laguntzen du, boluntario gisa, horiek kohesionatzen, abian jartzen edo kudeaketa-tresna berritzaileak sartzen.